*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**4841**

**467/2013 ERABAKIA, irailaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 1ean, kontzejuetarako erregidore eta bokalen hauteskundeak egitea onartzen duena.**

Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Erregidore eta Kideak Hautatzeko Foru Araua 1984ko uztailaren 30eko Biltzar Nagusietan onartu zen. Foru arau horren 6. artikuluan xedatzen da Foru Aldundiak egingo duela kargu horien hauteskundeetarako deia.

52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 5.6) artikuluan Diputatuen Kontseiluari aitortzen dio kargu horien hauteskundeetarako deia egiteko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako erregidore eta kideak izendatzeko hauteskundeetarako deia egitea.

Bigarrena. Hauteskunde horiek 2013ko abenduaren 1ean egingo direla ezartzea.

Hirugarrena. Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio hauteskunde prozesu osoa bere alderdi eta gorabehera guztietan izapidetzeko behar diren egintza eta xedapen guztiak emateko.

Laugarrena. Erabaki honek ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 24a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Toki Administrazioaren Saileko foru diputatua, JAVIER RUIZ DE ARBULO CERIO.– Toki Administrazioaren zuzendaria, LORENZO ARNAIZ ARMENTIA.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

**4841**

**ACUERDO 467/2013, del Consejo de Diputados de 24 de septiembre, que aprueba la convocatoria de Elecciones a Regidores/as y Vocales de los Concejos para el día 1 de diciembre de 2013.**

La Norma Foral de Elección de Regidores y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava, aprobada por las Juntas Generales el 30 de julio de 1984, establece en su artículo 6º que las elecciones para tales cargos se convocarán por la Diputación Foral.

El artículo 5.6) de la Norma Foral 52/1992, de Organización, Funcionamiento y Régimen jurídico de la Diputación Foral de Álava atribuye al Consejo de Diputados la competencia para convocar las elecciones a tales cargos.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Administración Local, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de la fecha,

ACUERDO

Primero. Convocar elecciones para la designación de Regidores/as y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava.

Segundo. Señalar como fecha de celebración de tales elecciones el día 1 de diciembre de 2013.

Tercero. Facultar al Diputado de Administración Local para dictar cuantos actos y disposiciones sean necesarios para la íntegra tramitación del proceso electoral en todos sus aspectos e incidencias.

Cuarto. El presente Acuerdo entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOTHA.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 2013.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– El diputado de Administración Local, JAVIER RUIZ DE ARBULO CERIO.– El director de Administración Local, LORENZO ARNAIZ ARMENTIA.

*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**5061**

**204/2013 FORU AGINDUA, urriaren 4koa, Arabako Lurralde Historikoko kontzeju bakoitzeko biztanle kopurua eta datorren abenduaren 1eko hauteskundeetan administrazio batzarretarako hautatu beharreko kideen kopurua zehazten duena.**

Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Batzarkideak Hautatzeko Foru Arauak, 1984ko uztailaren 30ekoak, 2.2. artikuluan ezartzen du entitate bakoitzean, gutxienez, errejidore-lehendakari bat eta bi batzarkide hautatuko direla. Laurehun biztanle baino gehiago dituzten herrietan, berriz, batzarkide bat gehiago hautatuko da berrehun biztanleko edo zatikiko, baina hautetsi kopurua inola ere ezingo da kontzejuari dagokion udaleko zinegotzi kopurua baino handiagoa izan.

Administrazio batzarretako kideak izendatzeko datorren abenduaren 1ean egingo diren hauteskundeei dagokienez, entitate bakoitzeko biztanle kopurua finkatu behar da, baita ere, bertako biztanleriaren arabera eta aurretik aipatutako aginduari jarraituz, administrazio batzar bakoitza osatu behar duten kideen kopurua. Hori horrela, bidezkoa da, 2013ko irailaren 1eko biztanle zentsuaren datuak ikusirik, zehaztasun horiek jasotzen dituen zerrenda argitara ematea.

Horregatik, hauteskundeei buruzko foru arau horretako bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat etorriz, eta Diputatuen

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

**5061**

**ORDEN FORAL 204/2013, de 4 de octubre, de determinación del número de habitantes de cada Concejo del Territorio Histórico de Álava y del correspondiente número de miembros de las Juntas Administrativas a elegir en las elecciones del próximo 1 de diciembre.**

La Norma Foral de Elección de Regidores/as y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava, de 30 de julio de 1984, establece en su artículo 2.2 que en cada Entidad se elegirán un/a Regidor/a-Presidente/a y dos Vocales como mínimo, aumentándose el número de estos últimos en aquellas localidades que superen los cuatrocientos habitantes a razón de un Vocal más por cada doscientos habitantes o fracción, sin que en ningún caso el número de electos pueda ser superior al número de Concejales del Ayuntamiento al que pertenezca el Concejo.

Siendo preciso fijar, en relación a las elecciones para la designación de miembros de las Juntas Administrativas, que se celebrarán el próximo día 1 de diciembre, el número de habitantes de cada Entidad así como el de los miembros que, con arreglo a su población y de acuerdo con el precepto antes citado, han de integrar cada una de las Juntas, procede, a la vista de los datos del censo de población a 1 de septiembre de 2013, publicar relación comprensiva de tales extremos.

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Transitoria Segunda de la Norma Foral de Elecciones citada y en